



Deialdiko lanpostuak

Hautapen prozedurak.

Deialdia egiten da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan atzerriko hizkuntzaren eskakizuna duten unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen 141 lanpostu betetzeko hautapen prozeduretarako.

Bat etorri abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren testu bateginaren zazpigarren xedapen gehigarriarekin eta martxoaren 2ko 20/2015 Foru Dekretuan xedatutakoarekin, desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba txandako lanpostuen kopurua 10 da.

Desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbaturiko lanpostuak osorik edo partez betetzen ez badira, txanda irekian betetzeko deitutako mota bereko lanpostuei gehituko zaizkie.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak deitutako lanpostu kopurua honela banatuta dago lanpostu motaren arabera (IIP: ingelesez ikasteko programa) eta hizkuntzaren arabera (gaztelaniaz edo euskaraz):

2.A. Maisu-maistren lanpostuen zerrenda:

MAISU EDO MAISTRA LANPOSTUAREN IZENA	TXANDA IREKIA	DESGAITASUNA DUTENENTZAKO ERRESERBA	LANPOSTU KOP. GUZTIRA
GORPUTZ HEZKUNTZAKO MAISUA EDO MAISTRA IIP GAZTELANIAZ	2		2
HAUR HEZKUNTZAKO MAISUA EDO MAISTRA IIP GAZTELANIAZ	19	5	24
HAUR HEZKUNTZAKO MAISUA EDO MAISTRA IIP EUSKARAZ	2		2
LEHEN HEZKUNTZAKO MAISUA EDO MAISTRA IIP GAZTELANIAZ	87	5	92
LEHEN HEZKUNTZAKO MAISUA EDO MAISTRA IIP EUSKARAZ	1		1

2.B. Irakasleen lanpostuen zerrenda:

IRAKASLE LANPOSTUAREN IZENA	TXANDA IREKIA
BIOLOGIA ETA GEOLOGIAKO IRAKASLEA IIP GAZTELANIAZ	1
GORPUTZ HEZKUNTZAKO IRAKASLEA IIP GAZTELANIAZ	4
FILOSOFIAKO IRAKASLEA IIP GAZTELANIAZ	1
FISIKA ETA KIMIKAKO IRAKASLEA IIP GAZTELANIAZ	1
LANERAKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEETAKO IRAKASLEA IIP GAZTELANIAZ	1
GEOGRAFIA ETA HISTORIAKO IRAKASLEA IIP GAZTELANIAZ	5
GEOGRAFIA ETA HISTORIAKO IRAKASLEA IIP EUSKARAZ	1
ESKU-HARTZE SOZIOKOMUNITARIOKO IRAKASLEA IIP GAZTELANIAZ	1
MATEMATIKAKO IRAKASLEA IIP GAZTELANIAZ	2
MATEMATIKAKO IRAKASLEA IIP EUSKARAZ	1
TEKNOLOGIAKO IRAKASLEA IIP GAZTELANIAZ	1
KOMUNITATEARENTZAKO ZERBITZUETAKO IRAKASLEA IIP GAZTELANIAZ	1

Lanpostuen ezaugarriei dagokienez, aditzera ematen da deialdian sartutako lanpostuak ibiltariak izan daitezkeela.